

MARKINA-XEMEIN. Joan zan urtekoagaz alderatuta, %10eko igoerea eukiko dabe

EAJ eta EAren aldeko botoekin onartu dira aurtengo udal aurrekontuak

Batasunak esan dauenez, proposamenak aztertzeke ez da denporarik egon

Lore Bengoetxea |

Markina-Xemeingo Udalak aurtengo urterako aurrekontuak onartu ditu, EAJ eta EAren aldeko botoekin. Batasunak ezetz erantzun dau, bere ustez proposamenak informazino batzordeetan aurretiaz eztabaidatu behar ziralako.

Danetara, 6.322.740 euroko aurrekontua aurreikusi dau Udalak, igaz baino %10 gehiago. Udalbatzarrean eztabaidatu dabenean, Ogasun Batzordeak Uhagonerako aurreikusitako inbertsinoaren ganeko azalpenak emon ditu. «Inbertsinoa kulturgunearen oinarritzko proiekturako izateko gelditu ginan, baina baita jauregiaren segurtasuna sendotzeko be, orain arte lez arrisku barik erabilten jarraitu ahal izateko», argitu dabe.

Batasunak Informazino batzordeetan onartutako proiektuek aurrekontuetan daukien lekua aztertzeke denporea eskatu dau. «Holako dirutzako aurrekontua eztabaidatzeko ez da nahikoa Ogasun Batzordea behin batzeagaz», dino Batasuneko Ima Elexpuruk. Proposamena ez dabe kontuan hartu, eta EAJ eta EAren botoekin egin dau aurrera aurrekontuak.

MARKINA-XEMEIN. Kultur aretoan batuko dira

Euskal selekzinoen ganeko berbaldia antolatu dabe herriko talde biren artean

L.B. |

Markina-Xemeingo Esku Pilota Taldeak eta Amaur Kultur Alkartek antolatuta, euskal selekzinoen ganeko berbaldia izango da gaur, iluntzeko 20:00etan, Markinako Kultur Aretoan.

Gaurko ekitaldian Oier Zearra Galdakaoko pelotari profesionala, Iker Acero surflaria eta Endika Guarrotxena

ESAIT-eko kide eta Athletic-eko futbolaria izandakoa izango dira euskal selekzinoen ganeko gorabeherei buruz berbetan. Kepa Arroitauregi kazetari eta Euskadiko Pilota Selekzinoko hautatzailea izango da moderatzailea.

Antolatzaileek markinar guztiak konbidatu ditue berbaldira, eta galderak egiteko aukerea eukiko dabela gogortu dabe.

AMOROTO. 'Aupa Kintxo' saioa ekarriko dabe

Pirritx eta Porrotx pailazoen ikuskizuna eskainiko dabe ibarreko umeentzat

L.B. |

Amorotoko Udalak eta Herri Kultura Batzarrak antolatuta, Pirritx eta Porrotx pailazoen saioa izango da goizeko hamarretan, Kultur Etxean.

Takolo barik etorriko dira gaur Gipuzkoako pailazo entzutetsuak. Dana dala, umeek ederto pasetako aukera ona eukiko dabe. Amorotokoak ez eze, inguruko herrietako-

ak be bertan batuko dira. Holan, Ispaster, Aulesti eta Munitibarko txikien zain egongo dira, Lea ibarreko eskola txikietako umei begira presatutako ekimena dalako pailazoen ikuskizuna. Antolatzaileek *Eskola txikiak bizirik* izena emon deusie gaur jente aurrean erakutsiko daben ekitaldian. Bide batez, herri txikietako eskolen zeregina aldarrikatuko dabe.

INBERTSINOAK



LORE BENGOTXEA

Udaletxe barria atontzen 420.710 euro inbertiduko ditue, eta beste horrenbeste zaharren egoitzan.

Zaharren egoitzaren eta udaletxearen artean

Markinak 2.784.783 euro gorde ditu inbertsionetarako (458.349.194 pezeta), igaz baino 373.444 euro gehiago (62.135.853 pezeta). Hemen dagoz inbertsino batzuk:

SOLARTEKUA ZAHARBARRITZEA. Udaletxe barria bertan joango da: 420.710 euroko inbertsinoa aurreikusi dabe aurtengo urterako (70 milioi pezeta).

ZAHARREN EGOITZEA. Udalak diruz lagunduko dau: 420.710 pezetako inbertsinoa egingo dabe (70 milioi pezeta).

AGUSTIN DEUNA KALEAREN URBANIZAZINOA. Aur-

ten 270.456 euro inbertiduko ditue (45 milioi pezeta).

UR ARAZTEGIA. Kontzeptu honetan, 300.510 euro gorde ditue (50 milioi pezeta).

BEKO BENTAKO ESPALOIAK. 150.250 euro (25 milioi pezeta).

SANEAMENTUA. Ugarte eta Barroetako saneamentuan 108.182 euro inbertiduko ditue (18 milioi pezeta).

UHAGON. Oinarritzko proiektua gauzatzeko 102.172 euroko inbertsinoa aurreikusi dabe (17 milioi pezeta).

AULESTI

Zaldi eta mando proben txapelketea domekan hasiko da

L.B. |

Domekan hasiko da aurtengo Aulestiko zaldi eta mando txapelketea. Asteburu bi iraungo ditu, eta Euskal Herriko txapelketarako puntuagarria izango da. Hamar sari egongo dira jokoan, eta beste bost gordeko ditue Lea-Artibai eskualdeko parte-hartzaileek onenentzat.

Sari ederrak dagoz jokoan. Euskal Herriko txapelketearen barruan lehenengo postua eskuratzeko dauenak 620 euro hartuko ditu. Hamargarren geratzen dana be ez da esku hutsik joango, 230 euro gorde ditue berarentzat eta. Lea-Artibaiko sariak 160 eurotik 50 eurora bitartekoak dira.

Ordutegia

Saioak ordu desbardinetan izango dira, egunaren arabera. Hilaren 17, 19 eta 24koa 17:30ean hasiko da, eta 18, 23 eta 25ekoa, 21:00etan.

Baldintzen artean jaso dabenez, Aulestiko 900 kiloko harri barria erabiliko dabe; abereen oinarritzko pisua 400 kilokoa izango da eta hortik gorako kilo bakotzeko beste kilo bana hartu beharko dabe; probak hasi baino ordu bete lehenago pisauko ditue abereak, eta Bizkaiko kirol epaileek ikusiko ditue.

AGENDEA

LEKEITIO

Bizikletak izteko leku barriak:

Udalak gogoratu dauenez, bizikletak izteko lekuak ipini ditue Uribarren kalean (Independentzia plazaren ondoan), Pascual Abaroa etorbideko 18. zenbakiaren aurrean eta Grupo Amaia inguruan, Talan, eta Uribarren eta Usotegi parkeetan.

ONDARROA

Erakusketea: Institutuko Astronomia taldeak irudiak ipini ditu Udalaren Erakusketan gelan, zapatura arte, astronomiaren ganeko jardunaldien barruan.

Astilleruko aparkalekuak:

Informazioa jasoteko Udaletxeak bigarren solairura jo behar da, edo 94 613 40 95 telefonora deitu.